

V - BESTELAKOAK

FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOA

Arabako etorkizun oparoko kirolarientzako laguntzen 2023rako deialdia

1. artikulua. Xedea eta helburua

Deialdi honen xedea da Fundación Kirolaraba Fundazioak Arabako etorkizun oparoko kirolariei laguntzeko zerbitzuak emateko espezietako dirulaguntzak arautzea.

Deialdi honen helburua 2022. urtean etorkizun oparoko kirolari izendatutako kirol-karrera garatzen laguntzea da.

Hori guztia Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorretan xedatutakoaren esparruan (50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, Foru Gobernu Kontseiluarena, 2019ko azaroaren 20ko ALHAOn argitaratua, 134. zk., eta martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuaren bidez aldatua), Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 9ko 11/2016 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua. Laguntzak emateko prozedura

Laguntza horiek emateko prozedura Arabako Foru Aldundiak 2023rako etorkizun oparoko kirolari izendapena lortu duten eta deialdi honetan deskribatutako onurak lortu nahi dituztela erakusten duten pertsonen arteko norgehiagoka izango da.

3. artikulua. Onuradunak eta baztertuak

1. Horrelako laguntzak jaso ahal izango dituzte Arabako Foru Aldundiak 2023rako etorkizun oparoko kirolari gisa izendatuta dauden eta aldi horretan izendapena eragin zuen kirol-jarduerari eusten dioten kirolariek.

Edonola ere, eskatzaileek indarrean dagoen lizentzia federatua izan beharko dute, dagokion kirol-modalitateko Arabako federazioak izapidetua (2022/2023 denboraldia edo 2023. urtea).

Aurrekoa gorabehera, eskatzaileek, aldi baterako eta ezinbestean, lizentzia Arabako Lurralde Historikotik kanpoko kirol-federazio batean lortu behar badute, baldintza hori bete ezean ezin izango baitute kirol-hobekuntzarik egin, justifikazio-idazkia aurkeztu ondoren, atal honetako aurreko paragrafoan ezarritako baldintza betetzetik salbuetsi ahal izango dira.

2. Berariaz baztertuta geratzen dira deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak, eta, bereziki, honako tipologia hauetakoren batean sartzen direnak:

– Etorkizun oparoko kirolari ez direnak, Arabako Foru Aldundiak emanak.

– Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren 3. oinarrian jasotako egoeretan daudenak (50/2019 Foru Dekretua, Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko diru-laguntzak emateko oinarri orokorrak onartu zituenak).

4. artikulua. Laguntzen guztizko zenbatekoa

Laguntzen guztizko zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu horretarako bideratutako zuzkidura (30.000,00 euro), Fundación Kirolaraba Fundazioaren 2023ko ekitaldirako Aurrekontuari egozteko modukoa.

Aurrekontu horrek ez du esan nahi Fundación Kirolaraba Fundazioak osorik kontsumitu behar duenik.

5. artikulua. Emandako zerbitzuak

1. Deialdi honetako gauzazko dirulaguntza zerbitzu gisa emango da, eta onuradunak zerbitzu horietara iritsi ahal izango dira deialdian ezarritako epean eta mugekin.
2. Kirolaraba Fundazioak zerbitzu hauek jarriko ditu proposatutako pertsonen eskura:
 - a) Kirol-psikologiako zerbitzua.
 - b) Kirol-nutrizioko zerbitzua.
 - c) Azterketa medikoen, traumatologia-kontsultaren, fisioterapiaren eta laguntza fisiologikoren zerbitzua.
3. Deialdi hau ebazten denetik 2023ko abenduaren 31ra arte eskuratu ahal izango dira zerbitzuak.
4. Onuradun bakoitzak erabili ahal izango duen zerbitzu-muga deialdiaren ebazpenarekin batera onartuko da, eta deialdi honen 10.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu da.

6. artikulua. Eskabideak aurkeztea

1. Promesa kirolariak aurkeztu beharko ditu eskabideak. Adingabea izanez gero, kirolariaren aitak, amak edo tutoreak egingo du. Eskabide hori Kirolaraba Fundazioaren patronatuko lehen-dakariari zuzenduko zaio, eta erregistro hauetakoren batean aurkeztu ahal izango da:

- Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorra.
- Vitoria-Gasteiz, Guardia eta Laudioko Ogasun bulegoen Erregistroa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroak.

Gainera, eskabideak telematikoki aurkeztu ahal izango dira Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Elektroniko Komunaren bidez, egoitza elektronikoa eskuragarri dagoena. Horretarako, aldeztu aurretik, eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Informazio gehiago: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>. Hori guztia Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa alde batera utzi gabe.

2. Deialdi honetarako eskabidea aurkezteak esan nahi du Fundación Kirolaraba Fundazioak proposatutako kirolarien eskura jarriko dituen zerbitzuen onuradun izateko borondatea duela.

7. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Deialdi honen xede diren zerbitzuak eskuratzeko, eskabide-orria behar bezala beteta aurkeztu beharko da (I. eranskina), salbu eta 6. artikuluan deskribatutako berariazko prozeduratik egoitza elektronikoa aurkezten bada eskabidea.

2. Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak ofizios egiaztatuko ditu eskatzailearen eta, hala badagokio, etorkizun oparoa izango duen kirolariaren nortasun-datuak, salbu eta eskatzaileak horren aurka egiten badu. Ofizios egiaztatzeari uko eginez gero, eskatzaileak NANaren fotokopia aurkeztu beharko du, bai eta etorkizun oparoko kirolariarena ere, biak ez badatoz bat.

8. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9. artikulua. Organo eskudunak

1. Fundación Kirolaraba Fundazioaren Patronatua izango da prozedura hasteko organo eskuduna, dagokion laguntza-deialdia onartuz.

2. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena, eta organo horri dagokio egiaztatzea eskatzaileek betetzen dituztela deialdi honetan ezarritako baldintza teknikoak eta administratiboak.

3. Eskabideak balorazio-batzorde batek baloratuko ditu. Batzorde horren osaera deialdi honen 10. artikuluan arautzen da.

4. Fundación Kirolaraba Fundazioaren Patronatuak ebatziko du laguntzak emateko prozedura, eta lehendakariari eskuordetuko dio.

5. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoak ebazteko eskumena Fundación Kirolaraba Fundazioaren Patronatuarena izango da, eta lehendakariari emango dio eskuordetza.

10. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

1. Eskabideak balorazio-batzorde batek aztertuko ditu. Batzorde horrek Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikulua hartuko du kontuan, eta honako hauek osatuko dute:

- Batzordeburua: Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko burua, edo hark eskuordetzen duena.
- Bokala: Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko talde teknikoko pertsona bat.
- Idazkaria: kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko pertsona bat.

2. Laguntzaren banaketa honela egingo da: deialdiari esleitutako guztizko zenbatekoa zati deialdi honek ematen dituen onurak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiak. Horren emaitza 2023. urtean kontsumitu beharreko banakako kreditu ekonomikoa izango da.

3. Balorazio-batzordeak akta bat egingo du ebaluazioaren emaitza zehazteko.

4. Eskumena duen organoak hilabeteko epean ebatziko du deialdia, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igaro eta ebazpena espreski eman ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute eskabidea ezetsi egin zaiela.

5. Dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntza zein eskatzaileari eman zaion adierazi beharko da, eta gainerako eskabideak berariaz ezetsi direla adierazi beharko da.

6. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikuluan xedatutakoaren arabera.

7. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua arabera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua. Laguntza onartzea edo ukatzea

Onuradunek laguntzak onartu dituztela ulertuko da, baldin eta idatziz uko egiten ez badiote.

Hala ere, 2023ko urriaren 31n onuradunen batek ez badu erabilitako kreditua erabili, laguntzari uko egin diola ulertuko da. Kasu horretan, uko egiten duten onuradunei esleitutako zenbatekoa proportzionalki banatuko da gainerako onuradunen artean, eta, horrela, pertsona bakoitzeko gehieneko kreditua handituko da.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak, bai eta Arabako Foru Aldundiko beste sail batzuek ere, emandako dirulaguntzekin eta laguntzekin.

Beste edozein administraziok edo erakunde publikok, nazionales zein nazioartekoek, edo erakunde edo instituzio pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratuz edo eskatuz gero, onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari.

13. artikulua. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Era berean, fundazioaren webgunean ere jarriko da ikusgai: www.kirolaraba.eus.

14. artikulua. Interpretazioa

Deialdi honen interpretazioaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza Fundación Kirolaraba Fundazioak ebaziko du.

15. artikulua. Ordezkaritza

Deialdi honen 9. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Patronatuko lehendakariaren esku uzten da laguntzak emateko prozeduraren ebazpena eta ebazpen horien aurka jarritako berraztertze errekurtsoen ebazpena.


16. artikulua. Azken klausula

Deialdi honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan (Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko diru-laguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak onartzen dituen) eta ondorengo aldaketetan ezarritakoaren mende dago, bai eta dirulaguntzen arloan Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzei buruzko 2006ko azaroaren 17ko 8/2003 Errege Dekretu Orokorrak arautzen dituzten diru-laguntzen arloko xedapenen mende ere.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 7a

Kirolaraba Fundazioaren Patronatuko presidentea
ANA M. DEL VAL SANCHO

Patroia
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	<p>Etorkizun Oparoko Kirolarientzako laguntza. Eskabidea (I. eranskina)</p>	<p>2023</p>
	<p>Ayuda para Deportistas Promesa. Solicitud (Anexo I)</p>	

ESKATZAILEA (KIROLARIA ADIN TXIKIKOA BADA AITA, AMA EDO TUTOREA)


SOLICITANTE (en caso de que sea menor de edad la solicitud la realizará el padre, madre o tutor)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo <input checked="" type="checkbox"/> IFZ (NANa, AIza, ...) NIF (DNI, NIE...)	Identifikazio zk. ■ N° identificativo	Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre			
Izena ■ Nombre	Lehen abizena ■ Primer apellido	Bigarren abizena ■ Segundo apellido			
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)	Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herrialdea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerría ■ Municipio	Herría ■ Localidad	PK ■ C. P.	
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico			

KIROLARIA (ADIN TXIKIKOA DENEAN) ■ DEPORTISTA (EN CASO DE SER MENOR DE EDAD)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo <input checked="" type="checkbox"/> IFZ (NANa, AIza, ...) NIF (DNI, NIE...)	Identifikazio zk. ■ N° identificativo	Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre			
Izena ■ Nombre	Lehen abizena ■ Primer apellido	Bigarren abizena ■ Segundo apellido			
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)	Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herrialdea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerría ■ Municipio	Herría ■ Localidad	PK ■ C. P.	
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico			

Orria ■ Hoja 1/4

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	<p>Etorkizun Oparako Kirolarientzako laguntza. Eskabidea (I. eranskina)</p> <p>Ayuda para Deportistas Promesa. Solicitud (Anexo I)</p>	<p>2023</p>
--	---	--------------------

Kirolaraba Fundazioak Etorkizun Oparako kirolarientzat eskura jarriko dituen laguntzeko zerbitzuen onuraduna izan nahi dut.

Solicito acceder a los servicios que la Fundación Kirolaraba pondrá a disposición de las personas designadas deportistas promesas.

**DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA ■
INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES**

Europako Parlamentuaren eta kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak KIROLARABA FUNDAZIOAK tratatuko dituela eta "Kirolarientzako laguntzak" tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: deialdi honekin lotutako espedienteaz izapidetzea.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezamitako kasuez kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin, tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak aitortzen baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Arautegiak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegoan dagoen KIROLARABA FUNDAZIOA jo beharko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba).

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser tratados por la FUNDACION KIROLARABA FUNDAZIOA y se van a incorporar en los tratamientos de "Ayudas para deportistas" para la finalidad de tramitar el expediente relacionado con esta convocatoria.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, y limitación que reconoce el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016, dirigiéndose a FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOA en la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

Baimena ematen dut Kirolaraba Fundazioak (FKF) nire datu pertsonalen tratamendua egiteko dirulaguntza honi buruzko izapideak eta kontrola kudeatzeko helburuetarako.

Expreso mi consentimiento para que la Fundación Kirolaraba Fundazioa (FKF) trate mis datos personales para las finalidades de gestionar la tramitación y control sobre esta ayuda económica.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ■ DECLARACIÓN RESPONSABLE
(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)


ADIERAZTEN DUT:

- Aurkeztutako datuak egiazkoak dira eta horiek baieztatzeko behar diren egiaztagirak guztiak erraztuko ditut; gainera, eskabidea aztertzeko eskatzen zaion informazio osagarri guztia aurkezteko konpromisoa hartzen dut.
- Ez nago deialdian ezarritako baztertzeko egoeretakoa batean ere.
- Egunean nago Arabako Foru Ogasunarekiko betebeharretan eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoetan.
- Ez naiz jasotzen ari xede eta helburu bererako administrazio publikoek edo erakunde pribatuek emandako laguntzarik edo diru-laguntzarik.

DECLARO:

- Los datos presentados son ciertos y me comprometo a facilitar las comprobaciones necesarias para verificar los mismos y a aportar toda la información complementaria que se solicite con el fin de analizar su solicitud.
- No incurrir en ninguna de las situaciones de exclusión establecidas en la convocatoria.
- Tener regularizada la situación con la Hacienda Foral de Álava y, en su caso, con la Seguridad Social.
- No estar recibiendo ninguna ayuda o subvención con este mismo objeto y finalidad concedida por administraciones públicas o entidades privadas.

Orria ■ Hoja 2/4



**Etorkizun Oparoko Kirolarientzako laguntza.
Eskabidea (I. eranskina)**

2023

Ayuda para Deportistas Promesa.
Solicitud (Anexo I)

FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia
FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava

Ez dut zehapen administratibo edo penalik diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion epai irmo baten bidez, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, berariaz aipatuta generoagatik edo sexu-orientazioagatik diskriminazioa egiteagatik gertatutakoak (dagokion zehapenean ezarritako aldiari).

Ez dut konkurtso-deklarazioa eskatu, ez naiz kaudimengabetzat jo edozein prozeduratan, ez nago konkurtsoan deklaraturata, ez nago esku-hartze judizialaren mende edo ez nago esku-hartze judizialaren mende Konkurtso Legearen arabera desgaitu bada, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntza-aldia amaitu gabe.

Ez dut ekarri, errudun deklaraturata izateko kausagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontratuen suntsiarazpen irmorik.

Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administrazioaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak, bateraezintasun-kasuren batean, gai horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.

Egunean ditut diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak.

Erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio bati gehitzen zaion edozein datu edo informazio funtsean zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunaren aurrean erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bada, adierazitakoa betetzen dela egiaztatze eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada, edo jakinarazpena egiten bada, ukitutako eskubidea edo jarduera gauzatzeko jarraitu ezin izango da gertaera horien berri jakiten den unetik. Sor litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

No estar sancionada penal o administrativamente mediante sentencia firme que le imposibilite obtener subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con mención expresa a las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de género u orientación sexual (durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción).


No haber solicitado la declaración de concurso, no haber sido declarada insolvente en cualquier procedimiento, no hallarse declarada en concurso, no estar sujeta a intervención judicial o no haber sido inhabilitada conforme a la Ley Concursal, sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.

No haber dado lugar, por causa de la que hubiese sido declarada culpable, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.

No estar incurso la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquellos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de incompatibilidades en los términos establecidos en la normativa que regule estas materias.

Hallarse al corriente del pago de obligaciones por reintegro de subvenciones

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (Artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas)

 <p>kirolaraba FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	<p>Etorkizun Oparoko Kirolarientzako laguntza. Eskabidea (I. eranskina)</p> <p>Ayuda para Deportistas Promesa. Solicitud (Anexo I)</p>	<p>2023</p>
--	---	--------------------

OFIZIOZ EGIAZTATZEA ■ COMPROBACIÓN DE OFICIO:
(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, Fundación Kirolaraba Fundazioak honako datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean: ■ De acuerdo con la normativa aplicable, la Fundación Kirolaraba Fundazioa comprobará en la administración competente los siguientes datos:

- **Zerga-betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa** ■ Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.
- **Eskatzailearen nortasun datuak** ■ Datos de identidad de la persona solicitante.
- **Etorkizun oparoko kirolariaren nortasun datuak** ■ Datos de identidad de la persona deportista promesa.

Egiaztapen horren aurka egin dezake, baina, kasu horretan, aipatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu. ■ Puede oponerse a esta comprobación, pero en ese caso deberá aportar todos los documentos mencionados.

Aipatutako datuak ofizioz egiaztatzeari uko egin nahi diozu? ■ ¿Desea oponerse a la comprobación de oficio de los datos mencionados?

- Ofizioz zerga betebeharrak egiaztatzearen hauen AURKA NAGO** ■ ME OPONGO a la comprobación de oficio del cumplimiento de las obligaciones fiscales.
- Ofizioz eskatzailearen nortasun datuak egiaztatzearen hauen AURKA NAGO** ■ ME OPONGO a la comprobación de oficio de los datos de identidad de la persona solicitante.
- Ofizioz etorkizun oparoko kirolariaren nortasun datuak egiaztatzearen AURKA NAGO** ■ ME OPONGO a la comprobación de oficio de los datos de identidad de la persona deportista promesa.

.....
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

Sinadura ■ Firma

Orria ■ Hoja 4/4